EBATZI DU:

***Lehenengoa.***– Gaur, F-228 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) «ECODE Fundación» delakoa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek berariaz onartu dituzte beren karguak.

***Bigarrena.***– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan inskribatzea, ongintza-sorospeneko eta lan arloko fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Erregelamendua onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan agindutakoaz bat etorriz (dekretu hori aplikagarria da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren Xedapen Iragankor Bakarraren indarrez eta EAEko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuan ezarritakoaren babesean).

***Hirugarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 19a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

RESUELVE:

***Primero.***– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-228, de la constitución de la denominada ECODE Fundación, de Bilbao (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

***Segundo.***– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 2.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones benéfico-asistenciales y laborales, conforme lo dispuesto en el artículo 14 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, que aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones del País Vasco (de aplicación de acuerdo con la Disposición transitoria única del Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, y del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco).

***Tercero.***– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de junio de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## OSASUN SAILA

### 4538

EBAZPENA, 2008ko uztailaren 7koa, Osasun sailburuordearena, ikerketa-lan komisionatuak egiteko diru-laguntzak emateko dena.

2008ko apirilaren 15eko Aginduaren bitartez, ikerketa-lan komisionatuak egiteko laguntzak emateko deialdia egin zen (maiatzaren 9ko EHAA).

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 4538

RESOLUCIÓN de 7 de julio de 2008, del Viceconsejero de Sanidad, por la que se conceden las ayudas para trabajos de Investigación Comisionada.

Por Orden de 15 de abril de 2008 publicada en el BOPV de 9 de mayo de 2008 se convocaron ayudas para trabajos de Investigación Comisionada.

Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartuta, hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Ikerketa-lan komisionatuak egiteko laguntzak ematea ondorengo zerrendan zehaztutako eskatzaileei:

I.– Osakidetza:

Considerada la propuesta de la Comisión de Valoración,

RESUELVO:

***Primero.–*** Conceder las ayudas para trabajos de Investigación Comisionada a las solicitudes que a continuación se determinan:

I.– Osakidetza:

| Erakundea<br>*Institución* | Ikertzaile nagusia<br>*Investigador/a principal* | Izenburua<br>*Título* | Emandako zenbatekoa (eurotan)<br>*Cuantía concedida (en euros)* |
|---|---|---|---|
| Gurutzetako Ospitalea<br>*Hospital Cruces* | Bilbao Zulaika, Pedro | Estudio coste-efectividad en la planificación radioterápica con PET/CT- | 1. urtea / *1.º año*: 20.000 |
| Gurutzetako Ospitalea<br>*Hospital Cruces* | Valls Soler, Adolf | Resultados de la asistencia perinatal de los embarazos prematuros en la red sanitaria del País Vasco | 1. urtea / *1.º año*: 11.000<br>2. urtea / *2.º año*: 11.000 |
| Osakidetza. SS.CC | Peiró Callizo, Enrique | Evaluación de los tiempos de atención del cáncer en las principales localizaciones: pulmón, mama, colon-recto y próstata | 1. urtea / *1.º año*: 17.150<br>2. urtea / *2.º año*: 17.550 |
| Osakidetza. SS.CC | García Urbaneja, Marbella | Evaluación del impacto de la implantación en los centros de Osakidetza del modelo de excelencia EFQM | 1. urtea / *1.º año:* 20.000<br>2. urtea / *2.º año*: 17.600 |
| Osakidetza. SS.CC | Samper Ochotorena, Ricardo | Prescripción antibiótica por los pediatras de atención primaria de Osakidetza. Análisis, variabilidad. identificación de mejoras | 1. urtea / *1.º año*: 7.050 |
| Osakidetza. SS.CC | Gutiérrez Ruiz, Begoña | Estudio de los días en situación de incapacidad transitoria que son consecuencia de listas de espera para consulta, realización de prueba diagnóstica o realización de intervención quirúrgica en la asistencia especializada de Osakidetza | 1. urtea / *1.º año*: 10.000 |
| Gurutzetako Ospitalea<br>*Hospital Cruces* | Cabriada Nuño, Valentin | Análisis de situación, revisión sistemática y validación de un algoritmo diagnóstico del tromboembolismo pulmonar (TEP) en los servicios de urgencias hospitalarias del Servicio vasco de salud | 1. urtea / *1.º año*: 17.300<br>2. urtea / *2.º año*: 11.600 |
| Gurutzetako Ospitalea<br>*Hospital Cruces* | Vela Desojo, Amaia | Estudio retrospectivo de la efectividad y posibles efectos secundarios en los pacientes en tratamiento con hormona de crecimiento (GH) y sustancias relacionadas, en la Comunidad Autónoma Vasca | 1. urtea / *1.º año*: 15.875<br>2. urtea / *2.º año*: 3.800 |
| Osakidetza, guztira<br>*Total Osakidetza* | | | 1. urtea / *1.º año*: 118.375<br>2. urtea / *2.º año*: 61.550 |

II.– Beste entitate batzuk:

II.– Otras Entidades:

| Erakundea<br>*Institución* | Ikertzaile nagusia<br>*Investigador/a principal* | Izenburua<br>*Título* | Emandako zenbatekoa (eurotan)<br>*Cuantía concedida(en euros)* |
|---|---|---|---|
| Osasun Saila<br>*Departamento de Sanidad* | Pérez de Arriba Diaz de Argandoña, Joseba | Explorar las utilidades de los ACGs para determinar medidas de financiación de los contratos programas, adecuación de los recursos y niveles de eficiencia | 1. urtea / *1.º año*: 12.000<br>2. urtea / *2.º año:* 4.450 |
| Osasun Saila<br>*Departamento de Sanidad* | Onaindia Olalde, Concepción | Contaminantes procedentes del tratamiento de las aguas de consumo en la CAPV. Evaluación del riesgo y de las alternativas de tratamiento | 1. urtea / *1.º año*: 12.423<br>2. urtea / *2.º año:* 7.000 |
| Osasun Saila<br>*Departamento de Sanidad* | Begiristain Aranzasti, José | Estado de salud y utilización de servicios de salud de las personas mayores institucionalizadas en la CAPV | 1. urtea / *1.º año*: 18.850 |
| Osasun Saila<br>*Departamento de Sanidad* | Esnaola Sukia, Santiago | Políticas de salud en la CAPV: análisis de la experiencia y propuestas de futuro | 1. urtea /*1.º año*: 20.000<br>2. urtea / *2.º año:* 7.000 |
| Guztira, beste entitate batzuk<br>*Total otras Entidades* | | | 1. urtea / *1.º año*: 63.273<br>2. urtea / *2.º año:* 18.450 |
| Guztira ( Osakidetza + beste entitate batzuk)<br>*Total (Osakidetza + Otras Entidades)* | | | 1. urtea / *1.º año*: 181.648<br>2. urtea / *2.º año:* 80.000 |

***Bigarrena.–*** Ordaintzeko era.

1.– Urtebeteko proiektuak.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren menpeko zentro onuradunetarako eta Osasun Sailerako laguntzak ordainketa bakarrean emango dira (laguntzaren % 100, entitate laguntzailearen laguntza onartzen denean. Entitate horrek egingo ditu ordainketak, gastuen justifikazioa aurkeztuta. Halaber, amaierako memoria ekonomikoa eta jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak -laguntza guztiari dagozkionak- bidaliko dira Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara, entitate laguntzailearen bitartez, 17.1.a) artikuluan adierazi bezala.

2.– 2 urteko proiektuak.

a) Lehenengo urtean Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren menpeko zentro onuradunetarako eta Osasun Sailerako laguntzak ordainketa bakarrean emango dira, entitate laguntzailearen bitartez (urte horri dagokion laguntzaren % 100). Urtearen amaieran memoria zientifikoa, urteko ekonomi memoria eta urte horri dagozkion gastuen frogagiriak aurkeztuko dituzte; horretarako,

***Segundo.–*** Forma de pago.

1.– Proyectos a 1 año.

Las ayudas destinadas a los centros beneficiarios dependientes de Osakidetza-Servicio vasco de salud y al Departamento de Sanidad se abonarán en un sólo pago (100% de la ayuda) a la aceptación de la ayuda a la Entidad Colaboradora. Dicha Entidad realizará los pagos mediante la presentación de la justificación de los gastos. Asimismo, se enviará una memoria económica final y el envío de las facturas originales o copias compulsadas por la totalidad de la ayuda a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria a través de la Entidad Colaboradora en los términos del artículo 17.1.a).

2.– Proyectos a 2 años.

a) El primer año, las ayudas destinadas a los centros beneficiarios dependientes de Osakidetza-Servicio vasco de salud y al Departamento de Sanidad, se abonarán a través de la entidad Colaboradora, en un sólo pago, a la aceptación de la ayuda (100% correspondiente a ese año). Al final del año deberán presentar una memoria científica, una memoria económica anual y los

jatorrizko frogagiriak edo zentroak konpultsatutako kopiak Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara bidaliko dituzte entitate laguntzailearen bitartez, 17.2.a) artikuluan adierazi bezala.

b) Bigarren urtean Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren menpeko zentro onuradunetarako eta Osasun Sailerako laguntzak entitate laguntzailearen bitartez emango dira, aldiaren hasieran eta ordainketa bakarrean (urte horri dagokion laguntzaren % 100). Urte horren amaieran amaierako txostena, amaierako ekonomi memoria eta dagozkion gastuen frogagiriak aurkeztuko dituzte; horretarako, jatorrizko frogagiriak edo zentroak konpultsatutako kopiak Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara bidaliko dituzte, entitate laguntzailearen bitartez, 17.2.a) artikuluan adierazi bezala.

***Hirugarrena.***– Honako ebazpen honek ez du administrazio-bidea ixten, eta, beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesatuek Osasun sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena EHAAn argitaratzen denetik hasita, betiere, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak moldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera; horrez gainera, ongi iritzitako beste edozein egintza ere erabil dezakete interesatuek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 7a.

Osasun sailburuordea,
RAFAEL CERDÁN ARANDIA.

justificantes de los gastos correspondientes a ese año; mediante el envío de las facturas originales o copias compulsadas por el centro a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria a través de la Entidad Colaboradora en los términos del artículo 17.2.a).

b) El segundo año, las ayudas destinadas a los centros beneficiarios dependientes de Osakidetza-Servicio vasco de salud y al Departamento de Sanidad, se abonarán a través de la entidad Colaboradora, en un sólo pago, al inicio de este periodo (100% correspondiente a ese año). Al final de este año presentarán el informe final, la memoria económica final y los justificantes de los gastos correspondientes mediante el envío de las facturas originales o copias compulsadas por el centro a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria a través de la Entidad Colaboradora en los términos del artículo 17.2.a).

***Tercero.***– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOPV, de acuerdo con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999, sin perjuicio de que puedan ejercitar cualquier otro que estimen pertinente.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de julio de 2008.

El Viceconsejero de Sanidad,
RAFAEL CERDÁN ARANDIA.

## INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

**4539**

AGINDUA, 2008ko uztailaren 14koa, 2008ko ekainaren 25eko Agindua zuzentzen duena. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren agindu horrek apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia aurkezten du 2008ko ekitaldirako. Dekretu horrek ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko enpresei diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen ditu.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2.b) artikuluan xedatzen duenez, testuinguruak argi eta garbi ezagutzera ematen ez dituen hutsak edo omisioak badaude, eta horiek zuzentzeko, xedapen, ekintza edo iragarpenaren edukia

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**4539**

ORDEN de 14 de julio de 2008 de corrección de errores de la Orden de 25 de junio de 2008, de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se convocan, para el ejercicio 2008, las subvenciones previstas en el Decreto 91/2002, de 23 de abril, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

El artículo 24.2.b) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los errores u omisiones que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido